

# TXOSTENA IXUSTENA

# 37

**EAEKO**

**BIZITEGI-BAZTERKETA**

**LARRIA GENERO-IKUSPEGITIK**

**- Laburpen exekutiboa -**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**Izenburua:** EAEko bizitegi-baterketa larria genero-ikuspegitik.  
Laburpen exekutiboa

**Lan taldea:** SIIS. Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Fundación  
Eguía-Careaga Fundazioa

## AURKIBIDEA

Aurkezpena, helburuak eta metodologia.....	<b>4</b>
EAEn zenbat lagun daude etxerik gabe eta bizitegi-bazterketaren egoeran?.....	<b>5</b>
Nolakoa izan da etxegabetasun-egoeren bilakaera EAEn?.....	<b>6</b>
Generoa oinarri duten diferentzia handiak daude, etxegabetasun egoeran daudenen ezaugarriei eta premiei dagokienez. ....	<b>7</b>
Gizonak baino emakume gutxiago dago bizitegi-bazterketaren egoera muturrekoetan. Zergatik? .....	<b>10</b>
Etxegabeentzako zentro eta zerbitzuak emakumeen beharretara egokitu behar dira. ....	<b>11</b>

## Aurkezpena, helburuak eta metodologia

- **Aurkezpena.** Oro har, etxegabeen fenomenoaz aztertzeko, bazterketa larriari buruzko esparru teoriko orokorra baliatu da, eta, gutxiago, bizitegi-bazterketaren ikuspuntu zehatza edo genero-ikuspegia. Azterlan honen bidez, genero-ikuspegian oinarrituta aztertu nahi da EAEko bizitegi-bazterketa larriaren fenomenoak, baina beste ikuspuntu zabalago bat ere baliatu nahi da, aterperik edo etxerik gabeko pertsonak ez ezik, beste batzuk ere kontuan hartzeko: etxebizitza ez-seguruetan edo desagokietan bizi direnak eta etxegabetzat hartu ezin direnak, bizitegi-bazterketaren eraginpean egonik ere.
- **Helburuak.** Helburu espezifiko hauek proposatu dira azterlan honetarako:
  - Eskuragarri dauden askotariko estatistika- eta informazio-iturriak baliatuta, EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoeren prebalentzia desberdina zenbatzea eta aztertzea, genero-ikuspegian oinarrituta, ETHOS tipologiaren arabera.
  - Zehatz aztertzea etxerik gabe dauden gizonen eta emakumeen ezaugarri bereizgarriak, haien osaera demografikoa, ibilbideak eta bizi-baldintzak kontuan hartuta.
  - Aztertzea zergatik emakumeen artean txikiagoa den bizitegi-bazterketa muturrekoen egoeren prebalentzia, eta zenbateraino identifikatu daitezkeen genero-identitateen eraikuntza sozialei espezifikoki lotutako babes-, kontentzio- edo balazta-faktoreak.
  - Espezifikoki etxerik gabekoentzat jarritako zerbitzuak erabiltzaileen behar, ibilbide eta nahietara egokituta dauden ebaluatzea eta horren inguruko praktika egokiak identifikatzea.
- **Metodologia.** Azterlan hau egiteko, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu dira. Zehazki, azterlan honetan, zehatz aztertu da gai horri buruz nazioartean dagoen literatura zientifikoa, erabilgarri dauden informazio- eta estatistika-iturriak baliatu dira eta teknika kualitatibo batzuk konbinatu dira; teknika horien artean nabarmentzekoa da bi eztabaida-talde egin direla, hezkuntzaren eremuko profesional batzuekin eta etxerik gabekoen kudeaketan eta arretan diharduten profesionalekin, bai eta 10 elkarrizketa ere, bizitegi-bazterketa larriko egoeretan dauden emakumeekin. Ikuspuntu analitikotik, azterlan honek oinarri duen esparru kontzeptuala etxegabetasun eta bizitegi-bazterketaren egoeran dauden pertsonen buruzkoa da, zeina FEANTSA federazioak garatu duen, Etxegabeei buruzko Europako Behatokia.

## EAEn zenbat lagun daude etxerik gabe eta bizitegi-bazterketaren egoeran?

- **Ez da erraza zehatz jakitea zenbat emakume eta gizon dauden etxerik gabe eta bizitegi-bazterketaren egoeretan.** Nahiz eta egungo ikerketen arabera bizitegi-bazterketako egoerarik muturrekoenak gehienbat gizonak bizi dituzten, literatura espezializatuan bada nolabaiteko adostasun bat: bizitegi-bazterketaren egoeren artean emakumeen presentzia minimizatzeko joera izan da, oro har. Egoera horien eraginpean dauden emakumeak behar beste ez zenbatzen lagundu duten kausen artean, honako hauek nabarmendu daitezke: batetik, analisisetan ohiko joera androzentrikoa nagusitu da, gizonen esperientziak erreferentziatzen hartuta; bestetik, definizio murriztaileak hartu dira, etxegabetasuna gaua kalean edo aterpeetan igarotzearekin lotuz (horrelakoetan, emakumeak argiro dira gutxiengo); eta, azkenik, zaila da egoera batzuen intzidentzia zenbatzea, etxegabetasuna ezkutatzeko joera baitago, emakumeen kasuan, zehazki.
- **Azterlan honetan jasotzen den kalkulua ETHOS tipologia aplikatzearen emaitza da, erabilgarri dauden estatistika- eta informazio-iturrietan oinarrituta.** Azterlan honetan, gaur egun etxerik gabe eta bizitegi-bazterketaren egoeretan gutxi gorabehera zenbat gizon eta emakume egon litezkeen esaten da, egoera horiek ETHOS tipologia kontuan hartzen dituen moduan. Horretarako, hamar bat estatistika- eta informazio-iturri erabili dira, hala nola bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gaueko azken zenbaketa (2014ko urrian egin), gizarte-integrazioari eta premia sozialei buruzko 2013ko Inkesta (FOESSA fundazioak egin) eta Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2011ko Errolda (garrantzitsuenak aipatzearen). Kasu guztietan, jasotako informazioa EAeri buruzkoa da, eta sexuaren arabera bereizita dago. Ezin izan dira ETHOS tipologia kontuan hartzen dituen azpikategoria guztiak zenbatu, ez eta zehaztasun-maila berarekin zenbatu ere, kalkulatu ahal izan diren kasuetan; hala eta guztiz ere, lortutako emaitza oso erabilgarritzat jo daiteke, gaur egun etxegabetasun eta bizitegi-bazterketaren egoera EAEn zenbaterainokoa den gutxi gorabehera jakiteko.
- **EAEn, bizitegi-bazterketaren 234.166 egoera zenbatu dira guztira, etxegabetasun-egoerak barne direla.** Bildutako datuek iradokitzen dutenez, aztertutako etxegabetasun eta bizitegi-bazterketaren egoerak ez dira anekdotikoak: baliteke EAEn 230.000 lagun baino gehiago egotea egoera horietan. Guztiak osotasunean kontuan hartuta, egoera horiek gizonari eta emakumei berdintsu eragiten dietela ere ondorioztatzen da; beraz, egoeren banaketa bat dator talde bakoitzak biztanlerian duen pisuarekin.
- **Graduazio bat dago, esanguratsua, maiztasun txikienetik handira, ETHOS tipologiaren lau kategoria oinarritzat dagoenik (*aterpe gabe, etxe gabe, etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia*). Jasotako egoera guztien artean, %0,2 aterpegabeei dagokie; %0,6, etxegabeei eta %24,6 eta %74,6, etxebizitza ez-seguruen eta etxebizitza desegokien egoerei, hurrenez hurren. Graduazio hori hala mantentzen da gizonentzat eta emakumeentzat, nahiz eta banaketa bereiztu samar dagoela ikusten den kontuan hartutako oinarritzat dagoen kategorietan. Horren haritik, ikusten da gizonak emakumeak baino proportzio handiagoa dutela aterpe gabe, etxe gabe eta etxebizitza desegokietan bizi direnen artean; aldiz, emakumeen artean handiagoa da etxebizitza ez-seguruaren bizitzaren egoeren pisu erlatiboa.**

- **Beste azterlan batzuek aurrez iradoki duten bezala, gizon gehiago dira etxegabetasun egoeretan, hau da, *aterpe gabe* eta *etxe gabe* kategorietan multzokatutako egoeretan.** Gizonen eta emakumeen arteko diferentziak oso dira handiak *aterperik gabeko* egoerak bizi dituztenen kategorian. Jasotako egoeren artean, emakumeak %8,7 baino ez dira. Proportzio horrek gora egiten du *etxe gabe* kategoria kontuan hartzen denean: emakumeak %29 dira, eta gizonak, %71.
- **Etxegabetasun egoeretan (*aterpe gabe* eta *etxe gabe*) dauden kasu-kopurua eta bizitegi-bazterketaren egoeretan (*etxebizitza ez-seguruetan* eta *etxebizitza desegokietan*) daudenena desberdina da; genero-arrakala dago, funtsean, horren azpian.** Emakumeen laurden bat baino ez dago etxegabetasun-egoeretan (*aterpe gabe* eta *etxe gabe*); aldiz, bizitegi-bazterketaren egoeretan, askoz ere orekatuago dago aldea, haien pisu erlatiboa %50ekoa baita, gutxi gora behera.
- **Bildutako datuen arabera, etxebizitza ez-segurua kategoriaren barruan jasotako egoeretan, osotara hartuta, gehiago daude emakumeak.** *Etxebizitza desegokia* egoeren artean, ia berdina da gizonen eta emakumeen arteko proportzioa; *etxebizitza ez-segurua* izatearekin lotutako egoeren artean, berriz, emakumeak ia %60 dira. Kategoría horren barruan, egoerarik ohikoenak berehala (edo ez) etxe-kaleratzearen mehatxupean dagoen etxebizitza batean egoteari lotutakoak dira; kontuan hartutako egoera guztien %28 dira emakumeen artean, eta %19,3, gizonen artean.

## Nolako izan da etxegabetasun-egoeren bilakaera EAEn?

- **Erabilgarri dauden tresnak ez dira oso sendoak EAEn etxegabetasun-egoerak zer nolako bilakaera izan duen aztertzeko.** Egoera horien bilakaera zein izan den jakiten laguntzeko, bi informazio-iturri baino ez daude: gaueko zenbaketak eta Etxegabeei buruzko Inkesta. Oso muga handiak dituzte, ordea. Alde batetik, bi eragiketa horietako batek ere ez ditu behar bezala zenbatzen gaua kalean igarotzeari lotutako egoerak. Muga hori geografikoa da gaueko zenbaketetan, EAeko hiru hiriburuetako bilakaerari buruzko datuak baino ez baitaude; Eustaten inkestan, berriz, kontzeptuala da muga, zeren eta etxegabeentzako baliabideen erabiltzaileak baino ez baititu zenbatzen, hots, ez ditu kontuan hartzen espazio publikoa erabiltzen dutenak lo egiteko, baina zenbait motibo tarteko, etxegabeentzako arreta-sarea erabiltzen ez dutenak. Azterlan biek berez dituzten mugen barruan, azpimarratzekoa da azterlan biek bereziki eskaintzan jartzen dutela arreta *etxe gabe* egoerak zenbatzerakoan (hots, *aterpe* batean ostatu hartzeari edo egonaldi ertain-luzeetarako beste baliabide batzuei lotutakoak zenbatzeko orduan), eta baliteke horrek joeraren bat ekartzea berekin.
- **Kalean bizi diren pertsona kopuruaren bilakaera: jaitsi egin da kalean bizi direnen kopurua, baina gora egin du emakumeen pisu erlatiboak.** Nahiz eta etxegabetasun-egoerak behar bezala neurtzeko egun ditugun tresnak ez diren behar bezain sendoak, ez Etxegabeei buruzko Inkestak ez gauez kaleetan berriki egindako zenbaketek ez dute erakusten argiro gora egin duenik kalean bizitzeko joerak. Egoera

horietan emakumeek duten presentziari dagokionez, Etxegabeei buruzko Inkestako datuen arabera, 2005etik 2012ra bitartean behera egin du emakume kopuruak; aldiz, 2012tik 2014ra bitartean EAEko hiru hiriburuetan gauez kalean egindako zenbaketen emaitzen arabera, apur bat gora egin du bai emakume kopuruak, bai haien pisu erlatiboak, kalean lokalizatutako pertsonen artean. Hala eta guztiz ere, zehaztasun batzuk egin behar dira. Estatuko osoko Etxegabeei buruz egindako Inkestak erregistratutako datuetan eta beste hiri batzuetan gauez egindako zenbaketen emaitzetan, EAEn ikusitakoen antzeko joerak agertzen dira.

- **Ostatua duten baliabideetan dauden pertsonen kopuruaren bilakaera: emakumeek gora egin dute ostatu hartuta daudenen artean, aterpeetan izan ezik.** Oro har, erabilgarri ditugun datuen arabera, 2005etik 2012ra bitartean, gehitu egin dira etxegabeentzat ostatu ematen duten zerbitzuen erabiltzaileak; gizonetako gora egin dutelako, batez ere. Hala ere, gauez egindako zenbaketen azken datuen arabera, baliteke egoera horiek gehiago gehitzen aritea emakumeen artean. Halaber, ostatu hartzen duten pertsonen kopuru handiena biltzen duten kategorien egoerak aztertzen direnean (aterpeak eta bizitegi-zentroak, 2.1 eta 3.1 azpikategoriak; laguntzadun ostatuak, 3.3. azpikategoria; eta babespeko etxebizitzak, epe luzerako laguntzarekin, 7.2 azpikategoria), ikusten da emakumeen presentziak behera egiten duela (termino absolutu nahiz erlatiboetan) soil-soilik 2.1 eta 3.1 egoerei dagozkien zentroetan. Bestela esanda, emaitzek erakusten dute 2012tik 2014 bitartean emakumeen presentzia apur bat jaitsi egin dela horrelako zentroetan, zeintzuk, oro har, mistoak izaten diren, laguntza-intentsitate gutxikoak eta egonaldi motzekoak.

## **Generoa oinarri duten diferentzia handiak daude, etxegabetasun egoeran daudenen ezaugarriei eta premiei dagokienez.**

- **Bizitegi-bazterketaren egoera larrietan bizi diren pertsonen talde izugarri heterogeneoa osatzen duten arren, haien ezaugarriak aztertuta, genero-diferentzia handiak daudela ikusten da.** Ondoren, 5. kapitulutik aterako ondorio nagusiak aurkezten dira. Kapitulu horretan, EAEn gauez egindako azken zenbaketen lokalizatutako pertsonen egindako inkestako datuak erreferentziatzat hartuta, zenbatutako gizonen eta emakumeen ezaugarriak eta bizi-baldintzak aztertzen dira.
- **Gizonen artean, handiagoa da gazteenen pisu erlatiboa; emakumeen artean, berriz, handiagoa da bitarteko adin-tarteetan daudenena.** Lortutako emaitzen arabera, gizonen eta emakumeen adin orokorra oso antzekoa da (36,4 eta 37,4 urte, hurrenez hurren); hala ere, diferentzia batzuk daude, adin-multzoka duten banaketari dagokionez. Gazteenen artean (18 urtetik 24 urtera), ia %27 dira gizonak; emakumeak, berriz, %20 baino ez. Ehuneko horiek alderantzikatu egiten dira 35 urtetik 44 urtera bitarteko artean.

- **Emakumeak gutxiago dira immigratuen artean, baina pisu espezifiko handiagoa dute irregulartasun-egoeretan.** Atzerrian jaiotakoen egoera askoz ohikoagoa da gizonen artean (%61,5 dira; emakumeak, %54,2); emakumeen artean, berriz, nabarmen gehiago dira EAEn jaiotakoak. Gizonen artean, Magreb eskualdea da atzerritarren jatorri ohikoena, eta emakumeen artean, askoz ere jatorri gehiago aurki ditzakegu. Emakumeen artean atzerritarren pisu erlatiboa txikiagoa bada ere, bizileku-baimen gutxiago eduki ohi dituzte emakumeek.
- **Emakumeen harreman familiar eta sozialen sarea gizonena baino apur bat zabalagoa da.** Gizonen oso proportzio handi batek dioenez (%75,4), ezkongabea da lege-aldetik; emakumeen artean, berriz, ohikoagoak izaten dira ezkontzaren inguruko egoerak edo ezkontza-hausturarenak. Lege-egoera gorabehera, bikotekidea dutela esan du emakumeen %30ak, eta gizonen %23k baino ez. Emakumeen artean ere handiagoa da familia-lotura motaren bat duten pertsonen proportzioa, bai eta egunaren zatirik handiena lagunduta igarotzen dutenena ere.
- **Emakumeek, oro har, tarte laburragoetan egon dira etxerik gabe.** Urtebetetik beherako etxegabetasun-egoerak ia kasuen erdiak dira emakumeen artean; gizonen artean, berriz, %30 baino ez dira. Aitzitik, etxegabetasun-esperientzia oso luzeak (hiru urtetik gorakoak) %40 dira gizonen artean; emakumeen artean, laurden bat.
- **Emakumeek harremanen inguruko arazoiei egozten diete beren egoera, gizonek baino gehiago.** Etxegabetasun-egoerara iristeko kausa nagusiak zeintzuk izan ziren galdetuta, gizonek emakumeek baino gehiago aipatzen dituzte egiturazko faktoreak (batez ere, laneko arazoei, arazo ekonomikoei edo paper-faltari loturikoak); aldiz, emakumeen artean bereziki handia da harreman-faktoreen aipamena, familia arteko arazoei eta/edo bikote-hausturari loturikoak, indarkeria matxistaren egoera espezifikoak ere barne direla.
- **Gaua kalean ematearen egoerak askoz ere gutxiago daude emakumeen artean; hala ere, emakumeen artean biktimizazio gehiago gertatzen dira ingurune horretan.** Gaur egun nahiz iraganean, inoiz gaua kalean eman duten gizonen proportzioa ia %75 da; emakumeena, berriz, %47. Kalean jasandako etsaitasun-, larderia- eta indarkeria-esperientzia jakin batzuen inguruan lortutako erantzunen arabera, emakumeen biktimizazioa gizonena baino handiagoa da, aipatutako egoera-mota guztietan. Diferentziak bereziki handiak dira eraso fisikoei dagokienez (emakumeen artean, %31, eta gizonen artean, %20) eta, batez ere, sexu-erasoei dagokienez (ia %23 emakumeen artean, eta ia %2, gizonen artean).
- **Gizonen artean handiagoa da diru-sarrerarik ez dutenen proportzioa, eta emakumeen artean apur bat handiagoa da prestazio edo laguntza publikoak jasotzen dutenena, atzerriko nazionalitatea duten herritarren artean pisu espezifiko txikiagoa dutelako, neurri handi batean.** Gizonen %21ek dio ez duela inolako diru-sarrerarik; emakumeen artean, berriz, %13k. Halaber, emakumeen artean ohikoagoa da prestazio publikoren bat jasotzea (%47; gizonen artean, %41), eta prestazio horien artean, DSBE (%21, emakumeen artean, eta %18, gizonen artean). Generoari lotuta baino, nazionalitateari lotuta daude ikusitako diferentzia nagusiak: atzerritarren %26k baino ez du jasotzen prestazio edo laguntza publikoak, jasotzen dutenen artean %63 ez baitira atzerritarrak.



- **Emakumeek gizonek baino autopertzepzio okerragoa dute osasunari buruz.** Gizonen artean, erdipurdiko osasuna, txarra edo oso txarra dutenen proportzioa %33 da; emakumeen artean, berriz, %44. Halaber, emakumeek gizonek baino osasun-arazo larri edo kroniko gehiago izaten dituzte: horrelako arazoak ditu emakumeen %47k, eta gizonen %39k. Gaixotasun-mota aztertuta, patologia-mota ohikoenak maizago gertatzen dira emakumeen artean. Diferentziarik handiena nahasmendu eta gaixotasun mentalen kategorian gertatzen da. Lortutako erantzunen arabera, patologia mota horrek gizon guztien %13,7ri eragingo lioke, eta emakumeen ia %21ari. Oro har, osasun-arazo larri edo kronikoren bat duten gehienek tratamendu medikoa jasotzen ari direla diote; proportzio hori apur bat handiagoa da emakumeen artean. Osasun-txartela duten emakumeen proportzioa ere gizonena baino handiagoa da. Joera hori atzerriko nazionalitatea dutenen artean ere ikusten da. Emakumeek, halaber, gizonek baino gehiago jotzen dute osasun-zentroetara.
- **Emakumeen artean, gutxiago zabaldua dago droga-kontsumorako joera.** Ia gizonen %56k eta emakumeen %52k tabakoa egunero erretzeko joera dute. Jatorria funtsezko faktorea da gertaera hori esplikatzeko: EAEn eta Estatutan jaiotakoen artean, oso oso ohikoa da tabakoa kontsumitzea; ia %80 dira, edozein delarik ere sexua. Aldiz, genero-diferentziak nabarmenak dira atzerritarren artean: egunero erretzen du gizonen %40k, eta emakumeen ia %29k. Alkoholari buruzko datuek erakusten dutenez, alkohola egunero (astean 5 egunetan gutxienez) kontsumitzeari loturiko joerak oso gutxi zabaldua daude bizitegi-bazterketa larrian dauden herritarren artean (gizonen %9,2 eta emakumeen %4,1). Legez kontrako drogen kontsumoari buruzko datuen arabera, esan daiteke bizitegi-bazterketa larrian dauden herritarren legez kontrako drogen egungo kontsumoa gainerako herritarrena baino handiagoa dela, oro har, eta, biztanleria orokorraren artean bezala, emakumeek gizonek baino erabilera-prebalentzia txikiagoa dutela.
- **Gizarte-zerbitzuak erabiltzeko orduan, diferentziak daude gizonen eta emakumeen artean.** Diferentzia horiek bereziki handiak dira jantoki sozialetan (inkesta egin baino hiru hil lehenago, noizbait erabili ditu gizonen %31,3k eta emakumeen %12,2k), eguneko zentroetan (emakumeen %37,6 eta gizonen %25,1) eta higiene- edo garbitasun-zerbitzuetan, hots, dutxa publikoetan eta garbitegietan (gizonen %20,5, eta emakumeen %7,4). Joera hori ez da gertatzen ostatu hartzeko zerbitzuetan (zabal erabiltzen dituzte, bai gizonek, bai emakumeek), eta bi zerbitzu zehatzetan, emakumeek gizonek baino nabarmen gehiago erabiltzen dituztenez gero. Oinarrizko gizarte-zerbitzuez ari gara (emakumeen %44,6k erabiltzen ditu, eta gizonen %36,8k), eta osasun-zentroez (anbulatorioak, ospitaleak, ea.). Bizitegi-bazterketa larrian daudenek gehien erabiltzen dituzten zerbitzuen inguruan duten gogobetetzeari dagokionez, nabarmentzekoa da, oro har, nahiko handia dela jasotako zerbitzuei buruzko gogobetetze-maila, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

## Gizonak baino emakume gutxiago dago bizitegi-bazterketaren egoera muturrekoetan. Zergatik?

- **Ikusezintasun paradoxiko bat da.** Etxegabetasunari buruzko estatistikak eta literatura bat datoz: emakumeak ez daude behar bezala zenbatuta bizitegi-bazterketa larriaren egoeran daudenen artean. Fenomeno hori azterlan kuantitatiboetan erabilitako metodologiarekin lotuta dago; izan ere, horrelako azterlanetan, egoera ikusgarrienak baino ez dira kontuan hartzen, kaleko presentziari edo etxegabeentzako baliabideetan ostatu-hartzeari lotuak, oro har, eta baztertu egiten dira beste egoera batzuk. Horretaz gainera, hona beste argibide bat: emakumeek nahiago izaten dute beste aukera bat baliatu gaua kalean ez igartzeko (esate baterako, senideen edo lagunaren etxeetan lo egin) edo gizarte-baliabideak erabili.
- **Emakumeen mendekotasun transbertsala.** Adierazitako faktoreak ez dira nahikoak; izan ere, uste da emakumeek, erregimen patriarkala dela-eta, gizonak baino aukera gutxiago dutela bizitzaren eremu guztietan: diru-sarrera gutxiago izaten dituzte eta enplegu okerragoak (dimentsio estrukturala); babes txikiagoa jasotzen dute ongizate-estatuaren aldetik (dimentsio instituzionala); indarkeria matxistaren eta genero-indarkeriaren biktima dira (harremanen dimentsioa), eta osasun mental okerragoa eta mendekotasun afektibo handiagoa (dimentsio pertsonala) izaten dute, besteak beste.
- **Kontentzio-faktoreak.** Bizitegi-bazterketa larrienen kategorietan emakume gutxiago egotea ondo ulertzeko, beharrezkoa da faktore jakin batzuk kontuan hartzea: genero-lesleipenei estu loturiko faktoreak dira, kontrapisu egiten dutenak eta emakumeak kategoria horietatik —gehiago edo gutxiago— aldentzen laguntzen dutenak.
  - **Moldatu egin dira lan-prekarietatera.** Badirudi jakin dutela moldatzen lan-merkatuak eskaintzen dizkien baldintza okerrenetara. Horregatik aritzen dira gizonak baino gehiago gutxi aitortutako lanetan, batzuetan kontraturik gabe, hala nola etxeko lanetan, mendekoak zaintzen eta baita prostituzioan ere; ez dira lan egokienak edo aproposenak, baina bizirauten eta kaleko egoerak saihesten laguntzen diete.
  - **Abantaila batzuk dituzte gizarte-babesaren arloan.** Ongizate-estatua nagusiki kontribuzio-izaerakoa izatea kaltegarri da emakumeentzat; hala ere, emakumeek gehiago baliatzen dituzte prestazio jakin batzuk, eta nolabaiteko aldeko tratua ematen diete gizarte-zerbitzuetan. Erakundeen laguntza eskatzeko orduan ere eragozpen gutxiago izaten dituzte.
  - **Babes familiar eta sozial handiagoa izaten dute, baina mugatua.** Emakumeek laguntza gehiago jasotzen dute beren sare familiar eta sozialen bitartez, baina babes mugatua izaten da: normalean ordaina eskatzen du, eta, azken batean, emakumeen autonomia muga dezake.
  - **Paternalismo babeslea.** Emakumeen mendekotasunaren kontrapuntu gisa, patriarkatuak betebeharrak moduko bat ezartzen du emakumeak, ustez ahulak izaki, babesteko. Baina emakume guztiek ez dute babes bera jasotzen: lehenetsi egiten dira ama direnak, ama izan daitezkeen aldean, eta ama izan daitezkeenak, dagoeneko seme-alabarik izan ez ditzaketenen aldean.

- **Amatasuna: kapital soziala eta ekonomikoa.** Mendeko seme-alabak izatea bada faktore bat amak bizitegi-bazterketatik babes ditzakeena, ama horientzako baliabide espezifikoak daudenez gero. Hala ere, kontuan hartu beharra dago amatasunak umeen hazkuntzan erantzukizun handiagoak hartzea dakarrela sarritan, eta lan-aukera gutxiago izatea ere bai. Halaber, umeen zaintza galtzearen beldur, baliteke amak behartuta egotea bikote-harreman gatazkatsu batekin jarraitzera edo droga-mendekotasunerako tratamendu bat ez eskatzera.
- **Biktimizazioaren beldurra.** Etxegabeek beste herritarrek baino biktimizazio-tasa handiagoak nozitzen dituzte. Fenomeno horrek gizonei zein emakumeei eragiten die, nahiz eta emakumeek sufritzen dituzten sexu-eraso gehien. Bizitegi-bazterketa larriari buruz EAEn egindako azken azterlanaren arabera (SIIS Centro de Documentación y Estudios, 2015: 119), kalean lo egiten duten edo egin duten hiru emakumetik ia bat izan da eraso fisikoen biktima (%31,3) , eta lautik bat baino gehiago sexu-erasoena (%22,7); egoera berean dauden gizonen artean, berriz, %20,4 eta %1,8 izan dira, hurrenez hurren.
- **Estigmaren beldurra.** Emakumeen etxegabetasunari lotutako estigma gizonena baino askoz ere larriagoa da. Patriarkatuak etxeko eremua eta ugalketa-zereginak esleitzen dizkie emakumeei, eta, horregatik, emakumea etxean ez egotea genero-rol tradizionalen urratze gisa hartzen da, eta, beraz, oso estigmatizatuta geratzen da.
- **Espetxeratze-tasa txikiagoa.** Estatuan espetxe-zigorak betetzen dituzten herritarren %8 baino gutxiago dira emakumeak; beraz, nahiko babestuta daude zalantzarik gabe bazterketa-eragile den faktore batetik: espetxetik.
- **Nork bere burua zaintzeko eta laguntza eskatzeko joera handiagoa.** Emakumeak esaneko izateko eta zaintzarako sozializatzen dira, gizonak baino gehiago; horra hor faktore horien —eta aurrekoen— zergatia.

## Etxegabeentzako zentro eta zerbitzuak emakumeen beharretara egokitu behar dira.

- **Etixerik ez duten emakumeen ikusezintasuna: gizarte-zerbitzuen erronka.** Nahiz eta emakumeen etxegabetasunari buruz ez dakigun behar beste, espezializatutako literatura guztiaren arabera, ikusezintasuna da emakume horien ezaugarri funtsezkoetariko bat, gizonen etxegabetasunetik bereizten duena. Kalean geratu edo gizarte-zerbitzuak erabili baino lehen, emakumeek beste estrategia batzuk aukeratzen dituzte, hala nola senideen edo lagunen etxeetan lo egitea, gustuko ez duten bikote-harremanarekin jarraitzea, edo laguntasun edo zaintzaren truke ostatu hartzea. Gizarte-zerbitzuetan bizitegi-bazterketaren arazoa konpontzeko laguntza eskatzeari uko egitea dakar horrek guztiorrek, eta, ondorioz, ezkutuan geratzen dira emakume horiek bizi dituzten egoera zailak.

- **Harreman-arazoak: emakumeen etxegabetasunaren kausa nagusiak.** Emakumeek, gizonek baino gehiago, harremanen inguruko faktoreak argudiatzen dituzte etxerik ezaren eragileztat. Genero-indarkeria eta trauma emozionalak dira emakumeek etxerik gabe geratzera bultzatzen dituzten arazo nagusiak.
- **Gizarte-zerbitzuak ez erabiltzeko arrazoiak.** Etxerik gabeko emakumeek arrazoi nagusi hauek argudiatzen dituzte gizarte-zerbitzuetara ez jotzeko: baliabide mistoetan biktimizazioa jasatearen beldurra, gizarte-zerbitzuak baliatzeari lotutako estigma, zerbitzuetan artatzen dituzten profilekin bat ez datozela ustea eta zer zerbitzu dauden ez jakitea.
- **Etxerik gabeko emakumeen ibilbidea.** Garrantzitsua da ulertzea etxegabetasun ezkutua aldi baterako egoera bat dela ibilbide batzuen barruan, non, balitekeen kalean eta aterpeetan egon behar izatea, tarteka. Eguneko zentroak, jantoki sozialak eta aterpeak gizarte-zerbitzuetara jotzeko bidea izaten dira sarritan, nahiz eta EAEn eta Estatuan erabilgarri dauden estatistiken arabera, etxerik gabeko emakumeek antzeko egoeretan dauden gizonek baino gutxiago baliatzen dituzten horrelako baliabideak. Ikusi da etxegabetasun ezkutuaren egoeran dauden emakumeek ez dutela gizarteratze-prozesuekin bat egiten.
- **Emakumeentzako ostatu-baliabide espezifikoak falta dira.** Nahiz eta EAeko gizarte-zerbitzuek baliabide-hornidura ona daukaten etxegabeentzat (Estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoak dira plaza-ratioak biztanleko), mugatua da emakumeentzako plazak erreserbatuta dituzten aterpeen edo gaueko harrera-zentroen kopurua. Soilik emakumeentzat gordetako plazen proportzioa txikiagoa da gizonentzat gordetako baino (harrera-pisuak eta larrialdietakoak alde batera utzita), eta are txikiagoa mugagabeko egonaldietarako pisuetan.
- **Eskaera handia dago soilik emakumeentzat diren baliabideetarako.** Programa eta zentro konbentzionalak ez dira oso segurutzat jotzen indarkeria matxistarako; haien diseinua eta funtzionamendua androzentrikotzat jotzen dira (baita, oro har, gizarte-zerbitzuena ere); eta hango langileak ez daude behar bezala prestatuta eta sentsibilizatuta etxerik gabeko emakumeen premia bereiziak antzemateko eta artatzeko. Horregatik, emakume etxegabeentzat soilik izango diren baliabideak bultzatzea galdegiten du literatura espezializatuak. Baliabide horietan soilik emakumeek edo gehienbat emakumeek jardungo lukete, mesedegarria baita babesa parekoen artean ematea.
- **Beharrezkoa da genero-ikuspegia txertatzea zerbitzu mistoetan.** Egile batzuk harago doaz, eta emakumeentzat soilik diren zerbitzuak eskatzeaz gainera, etxegabetasun-politikak genero-ikuspegidunak izatea galdegiten dute. Eskatzen diren beste neurri batzuen artean, estandar batzuk ezartzea dago, arreta zuzena bermatzeko gizonentzat eta emakumeentzat, bai eta etxerik gabeko gurasoen artean umeen hazkuntzan erantzukidetasuna sustatzeko programak garatzea ere.
- **Genero-indarkeriaren biktimak, hobeto daude soilik emakumeentzat diren baliabideetan.** Literatura espezializatuak ez du aholkatzen genero-indarkeriaren biktimak zerbitzu mistoetan artatzea; bai, ordea, dispositibo jakin batzuk gomendatzen: emakumeentzat baino ez diren dispositiboak, emakumezko profesionalak dituztenak. Gizarte-zerbitzuek segurtasuna lehenetsi behar dute genero-indarkeriagatik etxerik gabe geratu diren emakumeekin, baina beste helburu batzuk ahortzi gabe: artatzen

jarraitzea, berdinen arteko babes-sareak ezartzea eta beste zailtasun gehigarri batzuei aurre egiten laguntzea.

- **Seme-alabak dituzten emakumeen beharrak kontuan hartu behar dira.** Nahiz eta ume txikiak dituzten amak lehenetsunez tratatzen diren gizarte-zerbitzuetan, baliabideak beti ez dira prestatuta egoten haien beharrei erantzuteko. Adingabeek beren espazioak behar dituzte, eta gizarte- eta hezkuntza-mailako babesa, eta, batzuetan, psikologikoa ere bai. Horien artean kontziliazio-zerbitzuen beharra izan ditzakete, eta, kasu batzuetan, zaintza, harrera eta adopzioari buruzko lege-aholkularitzarena. Seme-alabak berekin izan ezin dituzten amentzako arreta aurreikustea ere beharrezkoa da: dolua gainditzen laguntzen duten zerbitzuak eman behar zaizkie, edo familia berriz elkartzen laguntzen dutenak. Azkenik, arreta soziosanitarioa lehenbailehen jasotzeko eskubidea bermatu behar zaie etxerik gabeko emakumezko haurdunei, edo haurdun egon daitezkeela uste dutenei.
- **Irregularitasun administratiboa eta droga-kontsumoa: prostituzioan aritzen diren emakume etxegabeen arazo gehigarriak.** Euskadin, prostituzioan aritzen diren emakume gehienak atzerritarrak eta paperik gabeak dira. Horrek izugarri zailtzen du etxebizitza bat izan dezaten. Sexu-langileek droga-kontsumoan ere prebalentzia handia izaten dute, eta, horren haritik, kalteak murrizteko neurriak sartu behar dira talde horrekin egiten diren esku-hartze guztietan, sexu-transmisiozko gaixotasunak ez kutsatzeko neurriekin batera.
- **Droga-mendekotasuna eta gaixotasun mentala: gizarte-bazterketa nabarmen areagotzen duten faktoreak.** Etxerik gabeko emakumeek, baldin eta toxikomaniak edo osasun mentaleko arazoak ere badituzte, zailago lortzen dute behar duten arreta espezializatuta. Etxegabeentzako baliabide askotan, abstinentsia eskatzen da, eta hori, askotan, eragozpen handia izaten da baliabide horietan sartzeko, eragozpen iraganezina. Beste batzuetan, profesionalak aurreiritziak izaten dituzte emakume horiekin, eta, ondorioz, emakume horiek are gehiago baztertuta geratzen dira.
- **Etxerik gabeko emakume adinduak: oso talde txikia.** EAEn egindako azken zenbaketan, 60 urtetik gorako 15 emakume soilik zenbatu ziren. Adin bereko gizonen gehienbat kalean edo aterpeetan lo egiten bazuten ere (%59,2), adineko lau emakumetik hiruk egonaldi ertaineko edo luzeko baliabideetan egiten zuten.
- **Ugaritu egin dira emakume immigratuak, eta aldatu egin da etorkinen jatorri geografikoa.** Etxegabeei buruzko Eustaten 2012ko Inkestaren arabera, hau da ostatu-eta/edo jantoki-zerbitzuak balitzen dituzten emakume etxegabeen proportzioa: %46,27; 2005ean baino ia %10 gehiago. Latinoamerikatik etortzen direnak gutxitu egin dira; aldiz, gehitu egin dira Marokotik edo Saharaz Hegoaldeko Afrikatik datozenak.
- **Azterlan gutxi dago preso izandako emakume etxegabeei buruz.** Espetxean izan diren emakume etxegabeei buruz ia ez da ezer aztertu. Erabilgarri dauden datuen arabera, baliteke emakume horietatik askok etxebizitzarik ez izatea edo infraetxeetan bizitzea espetxean sartu baino lehen. Horretaz gainera, espetxetik ateratzean zailtasun askori aurre egin behar izaten diote askok eta askok. Beraz, esan liteke espetxea pieza pisutsua dela espetxean sartzten diren emakumeen bizitegi-bazterketaren zirkuluan.

- **Sexu-orientazioa eta genero-identitatea: bazterketa-eragile diren faktoreak.** Herrialde batzuetan, handitzen ari da emakume etxegabe lesbiana, bisexual eta transexualekiko (LBT) interesa. Badirudi familian eta ingurune gertuenean gertatzen diren intolerantziek, homofobiek eta transfobiek bide eman dezaketela etxetik joan daitezen emakume gazteak, hots, ezarritako kanonak apurtzen dituzten genero-nortasunak edo sexu-joerak dituztenak. Aipatu fenomenoek gizarte-zerbitzuetan ematen den arretan ere eragin dezakete, bai langileen jarrera dela-eta, bai beste erabiltzaile batzuen jarrera dela-eta.
- **Premia konplexuak, eta arreta integrala, banan-banakoa eta genero-ikuspegiduna.** Etxerik gabeko emakumeek, bizitegi-bazterketarekin eta genero-diskriminazioarekin batera, beste bazterketa-faktore batzuek sufritzen dituzte sarritan. Emakume horiek dituzten zailtasunak dimentsio askokoak eta intersezkionalak izaten dira, eta, ondorioz, premiak ere konplexuak, eta, gainera, aldatu egiten direnak denborak aurrera egin ahala; beraz, ez da harrizkoa gizarteratze-prozesuak luzeak eta korapilatsuak izatea. Horregatik, emakume horiei arreta integrala eman behar zaie, banan-banakoa, genero-ikuspegiduna, malgua eta ahalduntzera bideratua.
- **Emakumeak etxerik gabe gera daitezen saihestea: helburu errealista bat, politika sozialetan.** Kostuei eta efikaziari buruzko azterlanek agerian utzi dute etxegabetasuna murriztea egingarria ez ezik errentagarria ere badela, aurrezteko aukera ematen baitie politika publikoei, bai epe ertainera, bai epe luzera. Arazoaren konplexutasuna dela eta, prebentzio-lana behar bezala egiteko, neurri koordinatuak prestatu behar dira ongizate-politiken eremu guztietan, eta emakumeentzako esku-hartze espezifikoak egin behar dira esku-hartze orokorrekin batera. Berebiziko garrantzia du etxe-kaleratzeak prebenitzeak eta etxebizitza eskuragarriak bultzatzeak. Bestalde, genero-indarkeriaren kontra egitea eta trauma emozionalei garaiz heltzea lagungarri izan daiteke emakumeen etxegabetasuna eteteko, bi faktore horiek sarritan agertzen direnez gero bizitegi-bazterketa bizi duten emakumeen biografietan.